

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

347 - 2026ko EKAINA



ARALAR IRRATIA
35 URTE UHINETAN

MENDIALDEAN ELIKAGAIEN EKOIZPENARI BULTZADA EMATEKO JARDUNALDIA

Ekainaren 4an, Mimukain (Leitzan), Tokiko Elikadura Sistema eta Ekoizpena bultzatzeko Tokiko Politika Publikoer buruzko jardunaldia egingo dugu, arratsaldean. Elikadura Mahaiak antolatzen du jardunaldia, eta helburua da politika arlo ezberdinetatik tokiko elikadura sistema eta ekoizpena bultzatzeko praktikak eta esperientziak ezagutzea, tokiko erakundeetatik eta herri edo eskualde mailan antolatu direnei arreta jarrita.

Izan ere, maiz elikadura ez da politika arlo gisa identifikatzen, eta beste zenbait arlotan zeharka lantzen da, maiz duen garrantziaz ohartu gabe. Esaterako, kultura eta

kirol emanaldietan antolatzen diren herri otorduak, elikadura eskubidea bermatzeko antolatzen diren ekimenak, herri ostuetan lizitazioak, edo zaborren kudeaketa, tokiko elikadura sistemen parte dira. Halaber, nekazal ekoizpenari lotutako politikak gobernu zentralarekin edo autonomikoarekin lotu ohi dira, baina herri mailan ere badago nola eragin arlo horietan.

Honetaz guztiaz solasteko, eta beste zonalde batzuetako esperientziak ezagutzeko antolatu ditugu jardunaldiak. Bide batez, besteen esperientzietatik indarra eta ideiak hartu eta gurean lanean jarraitzeko bultzada hartzea espero dugu.





**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguraturua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**HOSTAL
BETELU**

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta
pizza goxoak

Erreserbak:
948 51 30 26 - 663 97 67 09



ALIPROX
Lekunberri
janaridenda

hamabostaldi
eskaintza bereziak

OTXOTORENA
okindegia



ARRIBE

ADIII! TLF BERRIA:
680 102 689



Izarberri
Bar-Restaurante

**Dastatu gure
pintxoak,
ogitartekoak,
bazkariak,
menuak eta
hanburgesak!**

Aralar 17, behea | LEKUNBERRI

948 575 783

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK

Granja Martiñones, CAINTZA, Nafarroa
Iabi, 649 472 057 - Ijace, 685 511 097
Malloak.com | info@malloak.com




02

CEDERNA GARALUR

04

KUXKUXEAN Zorion agurrak

07

MAITE DITUT MAITE

"Kastabalera igo eta depositutik jaitsi"

8

ELKARRIZKETA

"Txiki-txikitatik maite izan dut irratia"

Martin Juanena Berekotxea (Astitz)



12

BATZARRE

14

ELKARRIZKETA

"Pobrezia eta migrazioa kudeatzeko eredu oso gogor bat sendotzen ari da"

Alba Pradas Schiafino, Sants (Bartzelona) / Uitzu (Larraun)



18

KULTURA

28

PLAZATIK PLAZARA

"Beteluko Irakurle Taldea hiru lagunaren artean sortu genuen"

Leire Lopetegi Rekalde (Betelu)



31

AGENDA

- MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

- ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkarte.

L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/maillopealdizkaria

- ERREDAKZIOA:

Ainhoa Beraza, Aitor Irastortza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandezena eta Xanti Begiristain.

- ARGAZKIAK:

Ainhoa Beraza, Alba Pradas, Itxaso Iribarren, Juan Antonio Garaikoetxea, Lekunberriko Udala, Manex Saralegui eta Ruben Saralegi.

- PUBLIZITATEA:

Irati Moreno - 660 476 041

info@maillope.eus

- TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.



Ane Sarasa Arantzeta
Maiatzaren 8an, 7 urte.
Zorionak maitea!
Musu handi-handi bat
etxeke guztion partetik.



Irai Azurmendi Plazaola
Ekainean 17an, 5 urte.
Urte askotako, polita!
Familia osoaren partetik!
Asko maite zaitugu!



Jare Elordi Azurmendi
Ekainaren 4ean, 4 urte.
Zorionak etxeke
printzesari, egun polita
pasa dezazula!
Musu handi bat familia
guztiaren partetik!

Samuel San Sebastián Velilla
Ekainaren 10ean, 4 urte.
Zorionak, Samu!
Gure etxeke ilehori txikia zara!
Zurekin ez gara inoiz aspertzen.
Asko maite zaitugu, potxolo!



Mailope aldikaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu info@mailope.eus helbide elektronikora,
edo WhatsApp bidez **660 476 041** telefonora hilaren
15a baino lehen.



Lagunasesoria S.L.

**Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin
eta bertan eskuz egindako madalenak,
erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.



Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com



IZEN AKATSA MAILOPE 346. BERTSOAREN ATALEAN

Mailoperen 346. alean izen akats bat argitaratu zen bertsoaren atalean. Jon Eskudero Larralde beharrea, gaizki-uleratu baten ondorioz, Aritz Eskudero Larralde izena argitaratu zen.

Beraz, bertsoaren egilea Jon Eskudero Larralde errazkindarra izan zen, eta Mailopetik barkamena eskatu nahi diegu bi anaiei. Sentitzen ditugu eragindako eragozpenak.

*Bi anaietan onena nor den
galdezu zenidan, Aritz
sarritan esan izan dut baina
esan behar dizut berriz
bertsoa hasi eta bukatzen
kosta ohi zaigu hainbat aldiz
hobe genuke biotako bat
txukun antzekoa balitz.*

*Eta hurrengo lagunak ere
afizio asko omen
ehiza, arrantza, eta ondoak
maiteak dituzu, Ruben
sekretutxo bat jakin nahi nuke
saskia betetzearren
esadazu ba, ondoak biltzen
noiz ta non ibiltzen zaren.*

Doinua: Aditu laguna itsasoak.



KUBARA BIDALTZEKO OINARRIZKO PRODUKTUAK BILDU DITUZTE

Euskal Herriko 93 herritan eta 100 hezkuntza zentrotan bildu dituzte oinarritzko produktuak Kubara eramateko.

Kubara eramateko oinarritzko produktuen bilketan emankorra izan dela adierazi dute Ikasle Antolakunde Sozialistak (IAS) eta Euskal Herriko Kontseilu Sozialistak (EHKS). Ekimena elkarlanean antolatu dute Euskadi-Cuba elkartearekin, eta apirilean Euskal Herriko 93 herritan eta 100 hezkuntza zentrotan egin dituzte bilketak.

Egoera larriari aurre egiteko milaka kilo material bildu dituzte postuetan: higiene materiala, material sanitarioa, elikadura-osagarriak zein elikagai ez galkorrek, kirol-materiala eta ikasmateriala, besteak beste.

Gure eskualdean, apirilaren amaieran egin zuten bilketa, Lekunberriko Aliprox supermerkatu parean. Antolatuzaileek azpimarratu dute militanteen zein boluntarioen lanari esker bidaliko dutela laguntza Kubara, eta eskerrak eman dizkiete parte hartu duten herritar orori ere.



LAGUNTZAILEAK BEHAR DITUZTE ANTZINAKO AZOKAN

Aurtengoa, Lekunberriko 30. Antzinako Azoka izanen da, eta ospakizunarengatik, zenbait berrikuntzetan lanean ari dira. Horietan nabarmenena, abuztuaren 1eko arratsaldean Lekunberriko Alde Zaharrean eginen den herri antzerkia izanen da.

Duela zenbait urte arte, Azokaren egunean antzerki herrikoi bat ospatzen zen, eta izpiritu hori jaso nahi dute berriz. Herriaren historia eta pasarteak balorean jarriko dira, baina batez ere ongi pasatzea izanen da helburua.

Haur, gazte zein helduak behar dituzte arratsalde horretarako. Antzerkia Lorena Arangoa eta Esti Curiel aktoreek gidatuko dute, beraiek izango dute paper nagusia, baina herritarrak behar dituzte figurante eta laguntzaile moduan izateko.

Antzerkira apuntatzeko formulario bat zabalduko dute Lekunberriko Udaleko eta Kultur Saileko sare sozialetatik.

► Ruben Saralegi Martikorena (Errazkin)



*Galdetu zenuen lotsarik gabe
onddoak non ta noiz dauden
ibiltzen naiz ni gustura asko
zure harizetan biltzen
horiek biltzeko hasten ahal zara
liburuetan ikasten
iruditzen zait ez dakizula
pozoitsuak zein diren
ez ahal da hobe guk jarraitzea
nik biltzen eta zuk jaten.*

*Orain artean haritzen zara
aizkora kolpe ematen
suhiltzaile zara eta daukazu
zuk denbora asko tarten
saiatu behar dut oraingo honetan
zuri beste lan bat jartzen
ikusi nahi dut errima kontuan
zu nola moldatzen zaren
hasten ahal zara Maloperako
bertso pare bat prestatzen.*

Doinua: Mutil koxkor bat. Hurrengoa: Eneko Saralegi Martinikorena (Errazkin).



Egilea: Laura Saigos Burguera (Betelu).

IRITZIA

EL CONQUIS ETB1-EN

Estatistiken datuen arabera, inolako zalantzarik ez dago, ETB1ek oso audientzia, txikia duela, eta, ETB2k, ordea, askoz ere handiagoa.

Hasiera batean, ETB2 sortu zutenean, esan ziguten, kate hori jarri zutela jende erdalduna euskarara hurbiltzeko, baina, urte mordo handi bat igaro ondoren, ikusten ari garena da, euskaldun gehienak ez direla hurbiltzen ari ETB1era, baizik eta ETB2ra; beraz, ETB2ren asmakeria, hori, egundoko porrota izan da euskaldunentzat: audientzia askoz ere handiagoa du, aurrekontua ere bai, programazioa zabalagoa eta erakargarriagoa, bere ikusleen artean asko eta asko euskaradunak dira, kultur gaietan aipatzen dituzten erreferentzia mordo handi bat Espainia aldekoak dira, langileen taldea ere, kopuru handi bat pertsona euskaldunek (euskaradunak) osatzen dute, gauza bera gertatzen da aurkezle, antzezle eta abarren artean... Zer gauza tristea, Euskal Irrati Telebista izeneko ente, batean, euskaldunek erdaraz lan egin behar izatea erdaldunentzat, eta, diru publikoarekin, gainera, euskara duela mende eta mendeetatik pairatzen ari den jazarpen, zapalkuntza, debeku, iruzur, oldarraldia eta bat eta beste!

ETB1en, ia-ia miraria da urte osoan fikzioa euskaraz ikusi ahal izatea. Euskarazko zinema ona eta eguneratua ia ez da existitzen... Errepikapenak, bai, milaka!

Eta akaburako, ETB1en, tarteka-marteka,, alegia, komeni zaienean, oso disimulu handi eta sofistikuarekin, euskaldunok berberak gonbidatzen gaituzte, baxterez gabe, noski, oso irribarretsu, jakina, ETB2n, hau da, "en la euskal", hots, "en ETB DOS" programa erdaldun oso "herrikoi" eta "entretengarriak" hala nola, "El Conquis", "Vaya semanita" eta antzeko beste batzuk. Zeinen zoragarria eta hunkigarria dena, ez da hala! Ni, dagoeneko, urtzen hasita nago gurina bezala, pentsatze hutsarekin.

Gero, jakina, noizean behin, EITBko audientzia datuak, eman eta esaten digute oso onak direla, guri esker, noski, baina, benetan, onak izatekotan, erdarazkoak izanen dira onak-edo, euskarazkoei buruz ez dut uste gauza bera esan daitekeenik, edo bestela, oso gutxirekin konformatzen dira.

Noiz arte iraunen du gustu txarreko txantxa honek, ETB2enak? Noiz arte jasan beharko dugu euskaldunok ETB2en iruzur eta bidegabekeria hau?

Xanti Begiristain Madotz.
Auritz, 2026-04-01.

KOTXERA
Taberna • Jatetxea • Barra

948 50 43 52
kotxera13.com

Caserio Benta Zaharra,
Mugiro (Navarra)

Antsoenea
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsoenea.com
Uztegi (Araitz)

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

ANTONIO CARRARO

Hurrengoa:

Oier Goñi Martinikorena (Errazkin)



**Manex Saralegui Izaguirre
(Betelu)**

Zergatik aukeratu dut?

Mendian ibiltzen hasi nitzenean Betelu inguruan nekien bide bakarrenetakoa zelako eta ez zelako oso zaila.

maite ditut maite gure bazterrak

Kastabalera igo eta depositutik jaitsi

Ibilbidea: zirkularra

Distantzia: 7,5 km

Desnibela: +400 m

Zailtasuna: erraza



Bidea:

1 Beteluko zahar etxe paretik doan bidetik hasiko da ibilbidea.

Zementua bukatu eta gorantz joanda lulotas-era iritsiko gara eskuinetara segiz.

2 Gorantz segita basotik aterako gara eta gero berriz ere sartu beharko dugu.


3 Hemendik atera eta pistan eskuinetara bidegurutzea hartu beharko dugu.

4 Bidegurutzea hartuta basotik goazela beste bidegurutze batera iritsiko gara eta hontan eskuinetara hartuko dugu berriz.

5 Behin eskuinetara eginda dena beraka hasten da 2km gutxi gorabehera eta azken bidegurutzera iritsiko gara.

6 Hemen dagoeneko errepidea ikusten da eta eskuinetara joanda beteluko aparkalekura iritsiko gara. Hemendik herri bukaerara joanda hasierako puntura iristen da.

7



“Txiki-txikitatik maite izan dut irrattia”



Martin Juanena Aralar Irratian.

Maiatzaren 16an ospatu zituzten Aralar Irratiaren 35. urteurrena eta Martin Juanena Berekotxearen erretiroa. ‘Bertako irratiaren garrantzia’ izenburupean, mahai-ingurua Lekunberriko Gabari Gune Irekian hasi zuten. Bertan, Nafarroako hainbat komunikabidetako ordezkariak tokiko hedabideen egoera, erronkak eta etorkizuna hausnartu zituzten. Eguerdian, berriz, bazkaria egin zuten Kattagorri elkartearen. Ospakizunak Martin Juanenaren 35 urteko ibilbidea izan zuen ardatz, eta txapela zein oroigarriak jaso zituen, bertso eta besarkaden artean. Halaber, ekainaren 13an, Juanena Gorritin ospatuko den Larraungo Eguneako omendua izanen da.

Nolatan hasi zinen Aralar irratian?

Nire ibilbidea irrastian ez da ohikoa izan. 32 urte baserrian pasa nituen, aita-amarekin eta aziendarekin. Zoriontsu nintzen, baina baserrian bakarrik lan egiteko zalantza handiak nituen. Bitartean, Aralar Irratian esatari profe-

sional bat aritu zen hiru-lau hilabetez, baina azkenean, lana uztea erabaki zuen. Halako batean, 1991ko irailaren 22an, kultur zinegotzia nirekin elkartu zen, Jose Antonio Goikoetxea, eta Aralar Irratiko esatari lana eskaini zidan. Afizionatu baten bila ari ziren,

herria eta jendea ezagutzen zituen esatari bat nahi zuten eta horretarako aproposa nintzela iruditu zitzairen.

“Herria eta jendea ezagutzen zituen esatari bat nahi zuten”

Azkenean baiezkoa eman nien. Hurrengo egunean irrattira joan nintzen, eta hantxe zegoen Abelina Zabaleta, alliarra. 16-17 urte zituen eta goizeko saioak egiten zituen hurrekin. Asko balio zuen; oso xaloa zen.

Lau ordu inguruko saioa izan zen, denak ezagutzen nituen eta erraztasun handia izan nuen. Araitz eta Betelu ez nituen hainbeste ezagutzen, baina esan beharra dago ikaragarriko entzuleria zela han. Horrelako irrati bat oso erakargarria zen haientzat. Eta Larraungo herritarrentzat ere; agian Lekunberrin pixka bat gehiago kosta zen, erdararako joera handia baitzegoen.

Bokazio handia izan duzu...

Txiki-txikitatik maite izan dut irrattia. Bederatzi urte nituenean, kirolen albisteak entzun nahi izaten nituen eta hiruak bost gutxitan ematen zituzten emaitzak. Irrati txiki haietako bat nuen, transistore bat, eta eskola azpian gordetzen nuen. Orduan, egunero esaten nion maisuari pixa egiteko gogoa nuela. Azkenean, maisuak nire amari deitu zion eta esan zion:

—“Begiratu haur horrek maskurrian-edo ez ote duen arazoren bat; egunero 14:30ean sartzen gara ikasgelara eta 15:00etarako pixa egin nahi du”.

Azkenean, auzoko batek ikusi ninduen eskolaren azpian irrattia entzuten, eta berehala esan zion irakasleari. Orduan konturatu zen dena gezurra zela.

Egia esan, irrattizale eta kirolzale



Aralar Irratiaren 35. Urteurreneko solasaldia.

“Eskerrak eman nahi dizkiet entzule eta kolaboratzaile guztiei”

amorratua izan naiz betidanik, eta Aralar Irratian lan egitea harrigarria izan da. Atzera begiratuta pentsatu izan dut: kazetaritza ikastera joan izango banintz eta ezagutza horiek guztiak jaso izango banitu, ederra izango litzateke. Horregatik, aukera hau izatea mirari baten modukoa izan da, bigarren aukera eder bat.

Nolakoa zen lehengo irratsaioa?

Gure irratsaioa goizeko 11:00etatik 13:00etara izaten zen, gaur egun bezala. Egia da gazte gehienek eta lanean ari zirenek ezin zutela entzun, baina larunbatetan, Abelinak umee-kin programa politak egiten zituen, eta Gorka Urbizu eta Aitor Goikoe- txekak ostiral arratsaldeetan musika programa ederra egiten zuten. Haiek ere gazte asko erakartzen zituzten. Alegia, duela 35 urte, irratia tresna oso baliotsua zen.

“Duela 35 urte, irratia tresna oso baliotsua zen”

Ikaragarrizko entzuleria zenuten...

Jende askok estimatzen zuen Aralar Irratia. Dei ugari jasotzen genituen eta kalera irteten nintzenean, “idolo” bat izango banintz bezala tratatzen ninduten. Asko lotsatzen nintzen, baina argi ikusten nuen zenbateko estimua zidaten, eta horrek satisfazio handia sorrarazten zidan. Eskerrak eman nahi dizkiet entzule eta kolaboratzaile guztiei: Carmeni, Maria Jesuseri, Manoliri, Elenari... Pentsa, hiru hamarkada baino gehiago eman dituzte berriemaile lanetan, irratia barruan sentituz.

Horien artean, Edurne Agirrezabala goraiatu nahiko nuke. Abelinaren ondoren, 3-4 urte egin zituen nirekin

lanean. Lan handia eta ona egin zuen: 24 herrietako berriemaileekin kontaktua sortu baitzuen. Gainera, Juan Antonio Garaikoetxea ere aipatu nahiko nuke. Aspaldi ez da gurekin irratian egon, baina laguntzeko prest egoten zen beti. Horretaz gain, Joxe Mari Zabaleta, leitzarra aipatu nahi nuke. Aralarko San Migelen ezagutu nuen eta Aralar Irratian sekulako laguntza eman zigun bere bi alabekin batera, urte zahar gauean saio berezi bat egitera etortzen baitziren beti.

Amaitzeko, Karrape eta Guaixe irratiekin ere lotura handia izan dugula, eta hala jarraituko du; ordu eta erdi inguruko solasaldian egiten baitugu, eta hartu-eman handia dugu.

Zer zailtasun izan dira Aralar Irratiaren ibilbidean?

Garai batean bi orduko saioa euskaraz eta beste bi gaztelaniaz egin nahi zituztela. Irratia denon diruarekin ordaintzen zenez, gaztelaniazko irratia izateko eskubidea zutela adierazi zuten herritar batzuek. Gauzak horrela, garai hartako alkateak, Joxe Mari Ayerdik, eskaera hura ezeztatu zuen. Beraz, euskarazko irratia jarraitu zuen, eta ikaragarrizko ospea eta indarra lortu zituen: herritarren %70ek entzuten zutela esan izan da.

BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako
platerak.
Etxera eramateko
zerbiztua ere
eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

German Lasarte HARATEGIA
Arbeondo
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

SAN MIGUEL gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

urrutia enea
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI



Martin Juanena Aralar Irratian hasi zeneko irudi bat.

Irratiko berrikuntza teknologikoak nabaritu dituzu?

Lehenengo, zintak erabiltzen genituen, ondoren, biniloak, eta gerora, diskoak. Halako batean, Lekunberriko kultur teknikariak ordenagailu berria bat ekarri zidan; hura telebistaren adinako aparatua zen, kategoria handikoa!

Hala ere, irratiko ekipoa oso zahar-kiua dago eta dirulaguntza bat lortu nahi dugu berri eta eguneratzeko. Badakit gaur egungo telefonoen bidez informazio guztia eskuratu daitekeela, eta horretarako joera handia dagoela. Alde horretatik, irratia bolada zail bat bizitzen ari da, eutsi nahian, baina nik uste dut eutsiko diola. Beharbada, arazo gehiago ikusten ditut prentsa idatzian.

Zer iruditzen zaizu Mailope Aldizkariak eta Aralar Irratiak osatu duten proiektu komunikatibo berria?

Zirraragarria izan zen Mailope Aldizkaria eta Aralar Irratia elkartzea. Belaunaldi berrien garaia ere bada eta jendeak oso ongi hartu du. Herritarren aldetik, gutxienez, bultzada hori behar zuen.

Irratian egunero kontsumitzen ditugu albisteak; aldizkaria, berriz, hilean behin. Beraz, elkarren arteko elkarla-

na ezinbestekoa da. Pertsonalki, ez dut ulertzen nola herritar gehiago ez diren bazkide egiten. Ni lehenengo egunetik egin nintzen bazkide. Urtean 50 euroren truke, gure irratia eta aldizkaria babesten ditugu. Bazkide egiterakoan denon artean laguntzen dugu.

“Urtean 50 euroren truke, gure irratia eta aldizkaria babesten ditugu”

Jon Urtasunek hartuko du zure lekukoa...

Azpimarratu nahi dut Aralar Irratia “Martin” baino askoz gehiago dela, eta lekukoa Jon Urtasuni emateko

garaia iritsi dela. 2025eko urrian hasi zen, eta nik bezala, komunikabideak izugarri maite ditu. Gogoz aritzen da, oso gozoa, jatorra eta pasta onekoa

“Ez utzi Aralar irratia entzuteari”

da. Azken zazpi hilabeteetan oso gustura egon gara elkarrekin. Ahalagindu naiz nire jokamoldeak eta esperientzia partekatzen, eta berak teknifikazioari lotutako berrikuntza asko egin ditu. Niretzat altxor bat izan da. Horregatik eta mesedez, ez utzi Aralar Irratia entzuteari ni erretiratzen naizelako; proiektuak jarraituko du, eta Jonek saio ederrak egingo ditu. Oraingoan, haizea gure alde dago, eta ea hala jarraitzen duen.

Zer asmo duzu erretiratu ondoren?

Nik afizio asko ditut: pilota, herri kirolak, zinema, antzerkia... Baserria eta baratzeak ere baditugu; bertan beti izaten da lana. Hala ere, astelehenean Aralar Irratian poz-pez arituko naiz, kirol kontuei buruz hitz egiten, eta aprobeztatuko dugu betiko solasaldia mantentzeko. Beraz, Mailope aldizkaria irakurtzen eta Aralar Irratia entzuten eta parte hartzen jarraituko dut.

Amaitzeko, entzuleei eskerrak eman nahi dizkiet. Guztiak dira eskertze-koak, baina parte hartzen duten horiek bizitasun handia ematen diote irratitari. Oso eskertua sentitzen naiz. Niretzat Aralar Irratia zorientasuna, familia eta ogibidea izan da. Hori ezin da ukatu, beraz, jaso itzazue nire eskerrik beroenak.



Aralar irratiko zintak, biniloak eta diskoak.

Bizi natura, ondarea eta
abentura orekan.
Etor zaitez GoiNafarroara.



GoiNafarroa
Harri biziak



AltaNavarra
Piedras vivas

visitgoinafarroa.com



ENERGIA KOMUNITATEA MARTXAN JARRI DUTE AZKARATEN

Lau urteko prozesu luzearen ostean, Martxoaren 12tik Azkarateko herritarren artean sustatutako energia komunitatea martxan jarri dute.

Proiektua energiaren prezioek eta ingurumenarekiko kezkek bultzatuta abiatu zuten, eta gaur egun, 19 bazkidek parte hartzen dute eguzki plaken instalazioaren proiektuan.

Hala, Nafarroako energia komunitateen sarean integratutako kooperatiba eredu jarraitu dute, eta horrek, tramite administratiboak eta proiektuaren kudeaketa erraztu diela azpimarratu dute antolatzaileek.

Entzun albistea Aralar Irratian:

<https://labur.eus/prgspdn>



'ABIZENAK ERE EUSKARAZ' KANPAINA ABIAN DA

Euskal abizenak badituzu baina agiri ofizialetan erdal grafiarekin idatzita badituzu, euskaratzea oso erraza da; erroldatuta zauden udaletxean egin dezakezu, ondoko agiriak aurkeztuta:

- 1.- Nortasun agiriaren fotokopia.
- 2.- Jaiotza ziurtagiria.
- 3.- Errolda agiria.
- 4.- Familia liburua (seme-alabarik baduzu edo ezkon-duta bazaude).


Oroitu Araizko Udaleko ordutegia hurrengo hau dela: Astelehenetik ostiralera, goizeko 08:00etatik 11:30etara.

SAN MIGEL OMENTZEKO ERROMERIAK GIRO EDERREAN OSPATU DITUZTE

Maiatzaren 10ean, Arruiztarrek Santa Luzia Ermitara egin zuten erromeria, San Migel maiatzekoa ospatzeko. Beste behin Pilar Argiñena akordeoiarekin mezako abestiak jo zituen, Jexux Mari Sotilek meza nagusia zuzendu zuen eta herritarrek ederki abestu zuten.

Ohiturari jarraituz, herritarrek hamaiketako goxoa eskaini zieten bertaratutako 14 lagunei. Eguraldi ederra izan zen eta beteluarrak ere, erromeria bikaina egin zuten San Donato Baselizan.





▶ 80+: BEGI BERRIEKIN BEGIRATU BIDE BERRIAK AURKITZEKO

Adineko pertsonak, gazteak eta haurrak, herri berdinetan bizi dira, lurralde berdinean, baina desberdintasun handi bat dago haien artean: adineko biztanleek lotura estua zuten ibarreko inguruarekin.

Gaur egun, 80 urte baino gehiago dituzten Larraungo bizilagunek, bizimodu erabat desberdina izan zuten eta ezagutzaz beteriko altxorak dira.

Herri bakoitzak badu bere historia eta Paumak, Fundacion Caja Navarrak eta Fundación "la Caixa" k bultzatutako Programa Innovaren laguntzarekin garatutako proiektu honek, testigantza hauek guztiak bildu nahi ditu, ibarreko adinekoai merezi duten lekua eskainiz.



▶ 'ARANBURUGOITIARRAK: HERRI KIROLAK' ANTZERKIA MUGIRON

Lorena Arangoa eta Xabier Artieda antzezleen ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zen maiatzaren 22an, Mugioko frontoian.

50 lagun baino gehiago joan ziren Aranburugoi-tiarrak kaleko antzerki lotsagabea eta dibertigarri ikustera. Anai-arreba protagonistek denetarik egin zuten. Izan ere, Joxepi eta Joxemiel udan hasiko omen dira herri kiroletan, haien modu partikularrean. Garrantzitsuena parte hartzea baita. Ongi ulertzen dute elkar, edo hori pentsatzen dute behintzat...

UEMAK 'EGIN NIREKIN EUSKARAZ' KANPAINA ABIATU DU ASTE HONETAN

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) aste honetan abiatu du, hirugarren aldiz, 'Egin nirekin ere euskaraz' kanpaina. Halaber, Lekunberri ere parte hartu du.

Euskal Herrira etorri diren eta euskara ikasi duten edota ikasten ari diren euskal herritarrei aitortza egin nahi die oraingoan, batetik edo bestetik etorri arren denak bertakoak eta euskaldunak direla nabarmenduz.

Lekunberri, protagonistetako bat Karelys Borges Fernández da. Kuban jaioa eta udalerrriko bizilaguna da; aurten ekimenean parte hartuko duten hamabi laguneko taldeko kidea.



“Pobrezia eta migrazioa kudeatzeko eredu oso gogor bat sendotzen ari da”



“Etxebizitzaren krisia ez da hirietako errealitate hutsa”

Nola hasi zinen Katakarak espazioan parte hartzen?

Duela urte batzuk, hainbat egileren artean osatutako liburu kolektibo bat aurkeztu genuen Katakraken. Enpresa politikoa ulertzeko duten modu militanteak etxean bezala sentiarazi ninduen.

“Hainbat egileren artean osatutako liburu kolektibo bat aurkeztu genuen Katakraken”

Zer da zuretzat Katakarak?

Katakarak proiektu komun bat da: pentsamendu kritikoa sortzeko espazio bat, bazterketari, pobretzeari, eskubideen galerari eta arrazakeriari aurre egingo dion kontrabotere bat eraikitzeko aukera ematen duena. Nik horrela ulertzen dut, eta Negu Gorriak–Derecho a Techo kanpainak hori berresten du. CGTrekin eta Ba-kearen Etxearekin batera, bigarren urtez jarraian, kale egoeran dauden pertsonak hartzeko lokalak utzi dituzten hiru erakundeetako bat izan da. Horietatik %99 Magrebeko gazteak dira. Bizitza posizionatzea da, eta Katakrakek hala egiten du.

“Katakarak proiektu komun bat da”

Badakizu zer motatako jarduerak antolatzen dituzten?

Kultura programazioaz, kantineko espazioaz eta argitaletxeaz gain,

Bartzelonako Sants auzotik Uitzira iritsi zen Alba Pradas Schiafino. Militantziarekin, kulturarekin eta elkartasun sarekin lotura estua izan du azken urteotan. Izan ere, Katakarak gunean eta Negu Gorriak kanpainan parte hartu du.

Nongoa zara?

Katalana naiz, Sants auzokoa (Bartzelona), tradizio historiko borrokalaria duen bizileku batekoa: XIX. mendeko langileen grebetatik hasita, 1990-2000ko hamarkadetako mugimendu autonomoraino, “barri viu i combatiu” (auzo bizia eta borrokalaria) deritzona.

Gaur egun Uitzin, Larraunen bizi zara...

Bai, duela bost urte iritsi nintzen Larraunera. Beste haran batetik etorri nintzen, bizi nintzen etxebizitza saldu baitzuten eta lekuz aldatu behar izan nuen. Dirudenez, etxebizitzaren krisia ez da hirietako errealitate hutsa.

Katakraken batzarrak, formakuntzak eta deialdiak antolatzen dituzte. 1,50 euroren truke kafe bat hartu dezakezu, El Salto irakurtzen duzun bitartean, eta mahai berean euskaraz eta amazigeraz egiten diren elkarrizketak entzun ditzakezu. Langile ateneo baten eta herri taberna baten arteko jarduerak eskaintzen dituen espazioa da.

Zure ustez, zer garrantzi dute poesiak eta kontzertuek proiektuan?

Nahikoa da Slam Poetry saiora gerturatzea. Kultura tresna gisa ulertzen da, Joan Brossak proposatzen zuen bezala, arma bat marrazten duen poema gisa. Norbait etxerik gabeko pertsonekin partekatzeke tortilla batekin errezitatzeraz joatea, sorkuntza artistikoari eskatzen diodan guztia da. Rupi Kaurrek dioen bezala, "samurra izatea indartsua izatea da". Gauza ederrak beti dira sinpleak.

Zure ustez, nola parte hartzen du Katakrakek Iruñeko kultur bizitzan?

Astindu eta oxigenatu egiten du. Berezko argitaletxea dauka, ideien laborategi handia duena. Gainera, KatakraK Fundación de los Comunes elkartearen kokatzen da eta ikastaroak etengabe eskaintzen ditu. Halaber, Nociones Comunes autoformazio birtualeko gelatik paseotxo bat ematea opari galanta da.



KatakraK, Iruñea.

Noiz inplikatu zinen Negu Gorriak kanpainan?

Pobrezia eta migrazioa kudeatzeko eredu oso gogor bat sendotzen ari da, aldi berean bere burua progresistatzen aurkezten duten gobernuen menpe. EH Bilduren boto emailea naiz, baina kontraesan handia ikusten nuen inklusioari eta

giza eskubideei buruzko diskurtso instituzionalaren eta kalean bizi ziren 200 migratzaileen errealitate materialaren artean; administrazio boki blokeatuta eta oinarriko herritartasun eskubideetatik kanpo utzita zeuden.

Negu Gorriak, etxegabetsuna salatzen dugu, bazterketa



CONSTRUCCIONES

 ERAIKUNTZAK
 CONSTRUCCIONES
 URANGA/SAIGÓS, S.L.



TEILATUAK
 FATXADAK
 ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA
 665 708 683
 Lekunberri

IRURA
 IRURA URDAITEGIA
 Kale Nagusia, 20 | IRURA 943 691 376
 www.irura.com

PUBLIZITATEA MAILOPEN

Mailope aldizkaria
 660 476 041
 info@mailope.eus



IREKITA URTARRILETIK ABUZZURA

 PERKATZENEÀ
 SAGARDOTEGIA
 633976206
 649648669
 www.perkatzenea.eus
 San Anton, 20
 31879 Madatz

eta egoera irregularra ez direla istripuak edo porrot indibidualak, baizik eta klase pobreenentzat eta Atzerritarren Legeak zeharkatutako sektoreentzat eskubide eta baliabideetarako sarbidea antolatzeko moduaren ondorio politikoak. Nire ustez, "ongi etorri errefuxiatuak" esateak migratzaileak Gaza direla ulertzea ere esan nahi du.

"Pobrezia eta migrazioa kudeatzeko eredu oso gogor bat sendotzen ari da"

Beraz, zer da Negu Gorriak?

Asanblada bat da, non pertsona migratzaileek eta bertakoek, baita Lanaren Konfederazio Nagusia bezalako erakundeek, modu autonomo eta autogestionatuan lan egiten dugun. Beste hainbat eragilerekin elkarlanean aritzen gara, hala nola SOS Arrazakeria, Bakearen Etxea, Antartika edo Matalaz gizarte zentroarekin, besteak beste. Horrez gain, Arrano, Duguna eta beste kolektibo batzuen babesa ere izan dugu; horiek guztiek

afari-sare sendo bat antolatu dute harrera jasotzen duten pertsonen beharrak estaltzen laguntzeko.

laz eta aurten, espazio batzuk funtsezkoak izan dira kanpainarentzat: kale egoeran zeuden 25 migratzaile gazte ingururi lo egiteko tokia, gosaria eta antolatzeko aukera eskaini zaie; errolda lortzeko, osasun txartela eskuratzeko, formakuntzarako sarbidea izateko eta erregularizazio prozesuan sartzeko ere. Ni, Negu Gorriak kanpainaren parte naiz, erregularizazio prozesu horren alde egiten baitut lan.

Zer ekarri dizu kanpainak?

Niretzat, gure testuinguruan barne-mugak nola funtzionatzen duen argi ulertzeko baliagarria izan da. Muga-indarkeria ez dago soilik Melillako hesian, hemen ere badaude bazterketa mekanismoak, proletario migratzaile hura kanporatzeko: errolda ukatzea, gainezka dauden gizarte zerbitzuak itotzea, arraza-profilaren araberako polizia-kontrolak egitea... horiek ere mugak dira. Bilboko Zorrotzaurre edo Iruñeko Arantzadi hustu dituzten arduradun politikoak seinatu behar dira, izan EAJ ala EH Bildu. Hori da zintzoa dena.

"Negu Gorriak kanpainaren parte naiz"

Eta orain, beste proiekturen batean ari zara lanean?

Sindis taldean parte hartzen dut, erreproduzio sozialaren aldeko borroken inguruko ikerketa militante espazioa da. Duela pare bat urte Ama-lanen lehen Estatutua argitaratu genuen, eta lanean jarraitzen dugu etxeko lanaren aldeko (eta kontrako) soldataren proposamena jasoz, Silvia Federici bezalako erreferenteetatik abiatuta.

Amaitzeko, aipatu nahi dut "beste mundu posible bat" premiazkoa eta beharrezkoa dela onartzetik abiatu behar dugula. Eskuak batzen ditugunean, elkarri laguntzeko dugun botereaz jabetzea besterik ez dugu behar, arazoaren parte izatetik irten eta konponbidearen parte bihurtzeko.

"Eskuak batzen ditugunean, elkarri laguntzeko dugun botereaz jabetzea besterik ez dugu behar"



Negu Gorriak kanpainan Katakarak gunean.

Udako oporretan ere euskarazko planak barra-barra

Eskolarik gabe, zer egin udako oporretan? Nola antolatu ditzakegu gure asteak, eguraldiaz, lagunartez eta programazio desberdinez ahalik eta gehien disfrutatzen?

Ohitura onak urrats txikiekin transmititu daitezke: heldu bat irakurtzen ikusteak, esaterako, gauza bera egitera bultzatuko du haurra, eta seguru aski modu naturalean egingen du; Kultura euskaraz kontsumitzeko hautua egiten duenak hainbat arrazoiengatik egingen du. Dena delako arrazoia izanda ere, sekulako plazerra da norberaren hizkuntza propioan literaturaz, antzerkiak edo musikaz gozatzea. Modu berean, nahiz eta beste neurri bateko poza izan den duen, bere burua asetzea lortuko du euskara ikasten ari denak ere, hizkuntza praktikatu duela baita atsedenerako momentuetan ere, horretarako behar den patxada hartuz. Udako egunak arras aproposak dira gustuko dugun jardueraz gozatzeko.

Urteko oporraldirik luzeena hemen da. Udako oporrak! Haur eta gazte txoek azkeneko eskola egunak dituzte eta liburuak eta eskolako lanak alde batera utzita gozatzeko irrikan daude. Txikitako oroitzen ederrekin, ziur aski, udan kokatuta daude;

hiru hileko oporraldi amaigabea, igerilekuko, errekako edo hondartzako momentu ahaztezinak, herriko festak, iratzargailurik gabeko loaldiak... Uda haurren urtarorik kuttunena izaten jarraitzen du.

Hiru hilabete luze, atsedean hartzeko baita familian edo lagunartean plan bikainak egiteko ere. Egun ahaztezinak bizi eta jakina, denbora-tarte horretan euskarazko giroan murgilduta egoteko aukera badute, hizkuntzarekiko gaitasuna eta atxikimendua bizi horien bidez barneratuko dute.

Bada, ERA.eus-ek plan horiek bideratzeko hainbat proposamen egiten dizkizue:

- ▶ **Kultur agenda.** Uda oso aro egokia da etxetik kanpo kultur ikuskizunaz gozatzeko, batez ere kalean. Emanaldiez bertatik bertara disfrutatzeak umeen sormena eta irudimena pizten ditu eta, gainera, kultur proposamen horiek euskaraz baldin

badira, hizkuntza gaitasuna lantzen eta hizkuntzarekiko atxikimendua indartzen lagunduko die haurrei.

- ▶ **Txangoak eta ipuin-paseoak.** Lotura afektiboa, barrura begiratzeko aukera, hitzen esanahiak, hitz berriak, irudimena, jakin-mina eta, batez ere, ipuinak, gozamina dira. Eta mendi ibilaldiak? Lautadan edo gailurretik tontorrera, luzeak edo motzak, osasuna eta askatasuna, kirola eta natura... Bada, zergatik ez biak uztartu?
- ▶ **Mahai-jokoak.** Kanpinean edo herriko igerilekuan, udako ilunabar sargorietarako aukera aparta da familian mahai-jokoan aritzea.
- ▶ **Zinea eta Marrazki bizidunak:** eguraldiak kanporako plana egitea ahalbidetzen ez duenerako, hona hemen euskarazko zinea eta marrazki bizidunak edo eta askotariko ipuin-interaktiboak, audio-ipuina, podcastak... biltzen dituen atala.

Eman aukera haurrek uda hone-tan familian zein lagunartean, euskaraz murgilduta abentura ahaztezina bizi dezaten!

Baliabideak



Eskolaz kanpokoak



Musika



Zinea eta marrazki bizidunak



App-ak eta jostailuak



Ipuinak eta literatura




Jolasa



Hezkuntza



Gurasoentzako aholkuak



Irudizko osasun Familian



Udakonkale animazioa.

Araxes eta Ibarberri Ikastetxeetako Festa Egunak 2026

Maiatzaren 8an, Araxes Ikastetxeko Festa Eguna ospatu zuten Betelun. Goizean Juan Gorriti eta Txaro Garaten bisita izan zuten. Gorritik ikasle eta irakasle bakoitzarentzat prestatutako artelanak, pertsonalki, banatu zituen; kontutxo batzuk esan eta poz-pozik joan ziren denak irribarretsu. Ondoren, arratsaldean, ipuin kontalari musikatua, DJ Xaibor, jolas ezberdinak, ogitarteko dastaketa eta saskien zozketa izan zuten.

Festak Guraso Elkartearen proposamena izan zuen abiapuntu. Garai batean ospatzen zen "Umeen Eguna" eskolaren 50. urteurrenaren ospakizunetik aurrera, "Eskolako Festa Eguna" ospatzea erabaki zen. Eskolako Festa Batzorde Mistoak antolatu zuen (irakasleak, gurasoak eta LH5etik DBH bitarteko ikasle boluntarioak).

Txikienentzat Ipuin Kontaketa musikatua aurreikusita zegoenez, gainerakoentzat zer antolatu erabakitzeko, ikasle talde bakoitzari tarte horretan egiteko moduko jolas edo ekintzak proposatzeko eskatu zitzaizen. Gehiengoak aukeratutakoak prestatu ziren.

Arratsaldea normaltasunez hasi zen eta Xaibor DJ-ekin kantuan eta dantzan ari zirela, ezustean, eguraldia okertu zen eta denak "blai eginda" eta aterpe bila bukatu zuten. Frontoira sartu behar izan ziren. Bertan musikaren laguntzaz ogitartekoak das-tatu eta saskien zozketa egin zuten, eta ortzadarraren agerraldiak borobildu zuen eguna.

Maiatzaren 9an, ordea, Ibarberri Eskolako Festa ere ospatu zuten Lekunberrin. Musika entzuteko, dantzatzeko eta jolasteko egun aproposa izan zen, eta egitasmoa oso ongi joan zela azpimarratu dute antolatzaileek.



DJ Xaibor.



Bingoan jolasten.



Ipuin kontalaria.



Musika ekitaldia.

Lekunberriko Jubilatuen Etxeko Taberna ireki dute

Maiatzaren 14an, Lekunberriko Jubilatuen Etxeko taberna berriro ireki zuten, eta ekitaldian jendetza bildu zen. Aralar Musika Eskolako txistulariek, abeslariek eta San Juan Jubilatuen Elkarteko kideek parte hartu zuten, eta giro ederra izan izan zen.

Arkaitz Goikoetxea Lekunberriko alkateak ongietorria eman zuen. Halaber, argi adierazi zuen Jubilatuen Etxeko tabernaren kudeaketak etapa berri bat abiarazi duela, norabide komunitario berriarekin. Jubilatuen Elkarteko presidentek ilusioz hartu zuen tabernaren irekiera, eta zortetik onena opa zien kudeatzaile berriei.

Beraz, aurrerantzean, Jubilatuen Etxeko tabernak egunean otordu osasungarria eskainiko die bakardade egoeran dauden adinekoei, baita sozializatzeko eta lagunartean egoteko jarduera osagarriak ere. Zaintza eredu komunitarioa sustatu nahi dute eta horretarako lanean ari dira Gizarte Zerbitzuekin, Eguneko Zentroarekin eta Osasun Etxearekin.



Lekunberriko Jubilatuen Etxeko Taberna.



Sendabelarren inguruko ikastaroa Allin, Larraunen.

Sendabelarren inguruko ikastaroa

Maiatzan zehar, 18 lagunek parte hartu zuten sendabelarren inguruko ikastaroan. Egitasmoa Allin, Larraunen egin zen, eta Silvia Akerreta izan zen ikastaroko gidaria. Akerretaren aholku bikainak jarraituz, Aloe Verarekin krema eta kolutorioak egin zituzten. Ekintza Lekunberri eta Larraungo Kultur Mahaia antolatu zuen, eta espero dute heldu den urtean ere antzeko jardunaldi bat antolatzea.

'Larraungo Sagardogintza' bideoak harrera bikaina izan du

Aldatzen, maiatzaren 3an, lagunartean eta giro bikainean egin zen Larraungo Sagardogintza bideoaren aurkezpena. Jendetza bildu zen, eta bertaratutako guztiek azpimarratu zuten lanaren "kalitate handia".

Egitasmoa auzolanean eta musu-truk sortu da, bakoitzak bere aletxo emanaz, eta Ondare Kultur Taldeak nabarmendu du emaitza "bikaina" izan dela.

Bideoa ikusi nahi baduzu, sartu hurrengo webgunean: <https://www.youtube.com/watch?v=fYzYwjBczCI>



'Larraungo Sagardogintza' bideoaren proiektzioa.

Latxa Arrazako Enkantea, Mendialdeko Azoka Ibiltaria, eta Lore eta Landare Azoka Lekunberrin

Ehunka lagun elkartu ziren maiatzaren 17an Lekunberrin, Mendialdeko Azoka Ibiltaria, VIII. Lore eta Landare Azoka eta Latxa Arrazako V. Enkante Ofiziala elkartu baitziren herriko enparantza inguruan.

Giro bikaina izan zen eta 11:00etatik 14:00etara bitartean, hainbat postu eta bisitari elkartu ziren. 12:30ean, Latxa Arrazako V. Enkante Ofiziala egin zen, eta bertaratuaren artean ikusmin handia sortu zuen.

Ondoren, 13:00etan, axuri erre dastaketak jende ugari erakarri zuen, eta eguna giro ederrean amaitu zen.



tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es


**Construcciones
Gañarbe**

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri

☎ 616 457 540

✉ construccionegañarbe@gmail.com

30en bueltan

Larraungo Eguna
ekainaren 13an izanen da

Gorriti prest da aurten ere Larraungo Eguna ospatzeko. Ekainaren 13an, larunbatez, egun osoko egitarau zabala izanen da herrian: mendi ibilaldia, musika, pilota partiduak, dantza emanaldiak, herri bazkaria, bertso-saioa... Adin guztietarako proposamenak medio, festa giroa izanen da Larraunen.

Egitaraua:

Goizean, argi-soinua bailarako herrietatik txistularien eskutik

09:00 — Mendi ibilaldia Ttutturerekin:
Gorriti-Guratz-Uitzi-Gorriti (maila erraza)

10:00 — Pilota partiduak, Larraungo Pilota Elkartearen eskutik.

11:30 — Aralar Udal Musika Eskolaren emanaldia.

12:30 — Tirikitrauki Dantza Taldearen emanaldia.

13:30 — Larraungo Ingurutxo.

Animatu zaitez dantzatzer!

Ikastaroak: ekainak 1 eta 8, 18:00 Gabari Gune Irekian.

14:00 — Herri Bazkaria.

Txartelak AEK Euskaltegian salgai ekainaren 8ra arte.

Ondoren, bertso-saioa Uxue Alberdi eta Julio Sotorekin.

16:30 — Haurrentzako jolasak: Bizi-jolas parkea.

17:30 — Gazte zein helduentzako bingo musikatua.

19:00 — Dantzaldia Trikiteens taldearekin.

Euria bada, emanaldiak eta Ingurutxo frontoian ospatuko dira.
Antolatzailea: Larraungo Eguneko Batzordea.



Irunek 31 eginen ditu aurten eta 22rekin psikologia ikasketak bukatu zituen. Ordutik lan prekarioetan ibili da: kontratu laburrak, soldata baxuak eta etengabeko ziurgabetasuna. Esperientzia pilatu arren, ez du egonkortasunik lortu, eta horrek nekatu egin du. Orain administraritza eta zerbitzu orokorretarako oposizioak prestatzen hasi da; bide hori ez zuen hasieran irudikatzen, eta orain ere ez dago ziur: hau da nahi duena? Hemen dago bilatzen duena? Momentuz lor dezakeen segurtasun ekonomikoak irabazten du.

Anek 29 ditu eta ikasketak bukatu bezain pronto hasi zen lanean. Ordutik ez du etenik izan. Pixkanaka egonkortasuna lortu du, eta gaur egun bere mutil lagunarekin bizi da elkarrekin erosi duten etxe batean. Guraso izateko planak dituzte.

Maialenek 30 bete berri ditu eta bigarren karrera bukatu du: lehenik magisteritza ikasi zuen eta orain erizaintzako ikasketak burutu ditu. Aukera franko ditu lan munduan izan adar batetik edo bestetik. Hala ere, ez da guztiz lasai sentitzen. Kanpora joateko gogoia du ez baitu bere burua hemen ikusten, baina... nola alde egin hemen izan dezakeen egonkortasunari uko eginda?

Ikerrek ingeniarietza ikasketak bukatuta atzerrira joan zen. Orain 29 ditu eta bueltatzeko gogoia piztu zaio: familia eta lagunak gertuago eduki nahi ditu. Arazoa? Alemanian dituen lan baldintzak eta soldata ez dituela hemen topatuko.

Zein da ibilbide zuzena?

(...)

Ba al dago, baina, norabide egokirik?

Ziur nago: ez dago erantzun zuzenik edo hoberik. Zoriontasuna bilatzeko moduak hamaika dira.



“Izotz gaineko patinatzaileak ikustean, hegan egiten zutela iruditzen zitzaidan”



Itxaso Iribarren Saigos.

Itxaso Iribarren Saigos lekunberriarrak txikitatik izan du kirola eta jarduera artistikoak praktikatzeko interesa. Duela urtebete hasi zen izotz gaineko patinajea ikasten, baina kirol horrekiko diziplina sendoa garatu du denbora gutxian, eta Uharteko Izotz Klubean entrenatzen da gaur egun.

22

Noiz hasi zinen izotz gaineko patinajea?

Kirola eta ekintza artistikoak betidanik gustatu zaizkit. Txikia nintzenean kirol-gimnastika, futbola, padela, igeriketa sinkronizatua, etab. praktikatu nituen, eta pasa den urtean, 21 urte bete nituenean, izotz gaineko patinajea praktikatzen hastea erabaki nuen, Uharteko Izotz Klubean.

Egia esan, ikastaroan izena eman nuenetik ez da denbora gehiegi igaro, baina oso pozik nago lortu dudana-gatik. Izan ere, Iruñea, Lekunberritik urrun dago, eta gidabaimenik ez nuenean, gurasoek ezin ninduten aldiro-aldiro garraiatu. Beraz, gaur egun, lanean ari naizenez eta nire kabuz joateko aukera dudanez, txikitako nahi hura betetzen ari naiz.

Egia esan, izotz gaineko patinatzaileak ikustean, hegan egiten zutela iruditzen zitzaidan; haien janzkerak eta orekak hasieratik erakarri ninduten.

“Uharteko Izotz Klubean izena ematea erabaki nuen”

Zenbat aldiz entrenatzen zara?

Normalean egun batean entrenatzen naiz. Baina orain, erakustaldiak izan direnez bi egunetan joan naiz izotz pista; nire kabuz eta lagunekin, besteak beste. Entrenamenduetan, gehien lantzen ditudan alderdiak malgutasuna eta oreka dira, eta entrenamenduen iraupenari dagokionez, normalean ordu batekoak egiten ditugu, batzuetan ordu eta erdi edo bi ordukoak izaten diren arren.

Zer diziplina lantzen duzu gehien?

Orain izotz gaineko patinaje artistikoa lantzen dut, lehenengo urtean hastapena izan zen, eta hainbat mugimendu ikasi nituen: aurreraka, atzeraka, geldialdiak, etab. Aurten, dagoeneko artistikoa lantzen hasi naiz; oreka eta oinarrizko saltoak lantzen ari naiz.

Zein izan da orain arteko lorpenik nagusia?

Lehenengo saltoa egin nuenen uea hunkigarria izan zen. Zaila izan zen ikastea, baina gero argi ikusi nuen posible zela, ez zela telebistan soilik

ikusten zen mugimendua. Gainera, pasa den hilean, lehiaketa bat egin genuen eta hori ere oso interesgarria izan zen.

“Lehenengo saltoa egin nuenen uea hunkigarria izan zen”



Iribarren malgutasuna lantzen.



Baduzu erreferenterik?

Orokorrean, unean dauden patinatzailerik hoberenak jarraitzen ditut: Alysa Liu, besteak beste.

Zein zailtasun nagusi aurkitzen dituzu izotz gaineko patinajea?

Nire ustez, zailtasun handiena gorputza eta burua koordinatzea da, musikaren abiadura mugitzea ezinbestekoa da eta saltoak, geldiuneak, pausoak... horiek guztiak gogoan izan behar dira.

Horretaz gain, pistara irten baino lehenagoko presioa kudeatze ez da erraza. Saiatzen naiz arnasketak egiten eta kontzentratzen, buruan ko-reografia errepatatzen, errepikatzen,

lagunekin babesten... baina zaila da.

“Zailtasun handiena gorputza eta burua koordinatzea da”

Zein dira zure helburuak?

Momentuz, patin kaxkarrekin aritu naiz entrenatzen, eta orain, patin nahiko on batzuk erosi nahi ditut. Gainera, datorren urterako salto onak eta piruetak egiten ikastea gustatuko litzaidake. Halaber, etorkizunean, zerbait gehiago ikasten dudanean lehiaketetan parte hartu nahiko nuke.

“Patin kaxkarrekin aritu naiz entrenatzen”

Zer aholku emango zenioke patinatzen hasi nahi duen kirolari bati?

Adinak ez duela axola. Urte kopuru guztietako pertsonak elkartzen dira patinaje artistikoan, eta oso zaila dirudien arren, joaten bazara eta jarraitzeko funtsa baldin baduzu, helburuak lortzea posible da.

Amaitzeko, nire familiari eskerrak eman nahi dizkiot, beti etortzen baitira ni ikustera eta babestera.

LeKUNBERRI
TABERNA

948 507 628
lekunberribatberna@gmail.com
C/ Aralar, 14 bgo.
31870 Lekunberri
@Lekunberri Taberna

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARMITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZA
634 551 743
infoaralar@gmail.com

Errotalde 19,
Lekunberri

MARTILLO TXIKI
PERKUSO ESKOLA

www.martilloxiki.com
679 938 016

Albaitaritza
baserritarren
zerbitzura

Akaborro Ind., 31860 Iruztun
www.albaitaritza.com · 948 500 343



Angel Ayestarán Raid Txapelketan.

Apirilaren 18an, Nafarroako I. Raid Txapelketa izan zen

2026ko Nafarroako I. Raid Txapelketa apirilaren 18an egin zen Lekunberrin. 50 zaldi gaineko kirolari baino gehiago elkartu ziren. Nafarroako Hipika Federazioak eta Lekunberri Kirol Elkarteak elkarlanean antolatu zuten lehen edizioa. Probak Plazaolako Bide Berdea zeharkatzen zuen, eta ibilbide nahiko teknikoa izan zela azpimarratu dute parte hartzaileek.

Beti Kozkorrek denboraldi bikaina osatu du hirugarren mailan

Beti Kozkor Kirol Elkarteak denboraldi bikain bati eman dio amaiera aurten. Txapelketa zazpigarren postuan amaituta dute eta igoyerako playoff postuetatik oso gertu geratu dira. Hasierako helburu nagusia mailari eustea bazen ere, taldeak itxaropen guztiak gainditu ditu.

Gako nagusia talde-lan esker eta Romeo entrenaizailearen gidaritza zuzena izan dira; haiei esker, sailkapenaren goiko aldean borrokatzea posible izan da azken unera arte. Gainera, aipatzekoa da taldea eskualdeko jokalariz beteta egon dela, eta etxeko harrobiaren aldeko apustua arrakastatsua dela erakutsi dute.



Beti Kozkorreko kirolariak.

URZUBI S.A.
GASSÓ
Tel. 948 504 241
urzubi@hotmail.com
LEKUNBERRI



TAXI SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza


CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com


SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com


ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34


serigrafia
diseinua
estanzazioa
kaixo@gko.eus 608 226 234

PUBLIZITATEA MAILOPEN
Mailope aldizkaria
660 476 041 | info@mailope.eus

Araxeseko neska tiratzaileek 4. postua lortu dute

Maiatzaren 9an, Betelun jokatu zen Nafarroako 4x4 ko sokatirako 240 kg emakumeen kategoriako txapelketa, eta Araxeseko neskek 4. postuan geratu ziren. Maiatzaren 16an, ordea, bigarren eta kategoriako azken jardunaldia Elizondon egin zen, eta froga hartan, 2. postua lortu zuten. Hala ere, txapelketako kategoria orokorrean 4. geratu ziren.



Jardunaldiko talde argazkia.
Argazkiak: Mattie Garaiakoetxea.

Udako ludoteka eta kirol udalekuak 2026

Larraungo Udalak eta Plazaola Kirolguneak 2026ko udako ludoteka eta kirol udaleku zerbitzuak antolatu dituzte haur eta gaztetxoentzat. Ekainaren 22tik abuztuaren 28ra bitartean egingo dira, astekako txandetan banatuta, eta izen-ematea maiatzaren 25etik ekainaren 5era egonen da zabalik. Gu-txienez zortzi haur beharko dira talde bakoitza osatzeko, eta bi jarduerak euskaraz garatuko dira.



Kirol udalekuak.

Jakintza teoriko gehiegi.

Ikastearen garaiko semea naiz, lanbide on bat izateko ikastea izan da nire aukera paregabeetako bat. Eta baliatu dudala sentitzen dut, handik eta hemendik ikasiz, kalitate oneko bizitza eraikitzeko gai izan naizela uste dut. Baina, informazio artean denbora gehiegi eman dudanaren sentsazioa ere ba dut.

Jakintza asko eta jakinduria gutxi egon daitekeela esan zuen norbaitek. Ados nago. Gauzei buruz jakitea tresna bat da, ongi etorri daiteke horretara baldin bazaude, baina informazio gehiegi izateak jakitearen ilusio bat sortu dezake gero egia ez dena. Gauza bakoitzak bere ñabardurak ditu gainera, bere aldaerak, izaera bereziak... Urrutiko gauzetan hamalau jakin dezakegu, gerturatu eta lau direla ohartu gaitzke.

Jakintza teoriko asko dago, informazio asko, datuak, berriak... bada ordea nire ustez garaia beste jakintza mota batzuetan fokua jartzeko eta sakontzeko, jakintza emozionala, gure mugen jakintza... Benetan pertsona eta gizarte bezala informazio garrantzitsua emango digutenak autoezagutza finean jarraitzeko, osatuan.

Informazio teorikoa adimen artifizialek eraiki eta kudeatu dezaketen honetan, benetako giza jakintza zein den hausnartzeko garaia dela uste dut. Ikusten ari gara nola asko jakiteak ez gaituen hobeak egiten, ez digun benetan bizitzan baliagarri izateko laguntzen... Nola kokatu hori? Eskulana eta lan fisikoa gutxietsiak izan den garai honetan, horren balioa ere gero eta gehiago sentitzen ari gara.

Jakintza mundua ulertzeko modu bat dela ohartzen ari naiz, ez mundua bera. Mundua oraindik zabalagoa dela jakintza bera baino, beraz, jakin jakin, dakidana-rekin eta datorrenarekin, aurrera denok elkarrekin, umiltasunarekin, maitasunarekin, zaintzarekin!





ADIMEN ARTIFIZIALA LAGUN?

Azken urteotan, adimen artifiziala ia baimenik eskatu gabe sartu da gure bizitzetan. Telefono mugikorretan, itzultzaile automatikoetan, autoetan eta pelikulen gomendioetan dago. Baina bada eremu bat non bere presentzia bereziki deigarria hazten ari den: laguntza emozionala eta laguntza psikologikoa. Gero eta jende gehiagok hitz egiten du IA batekin, ez bakarrik zalantzak argitzeko, baizik eta entzunak sentitzeko eta bakardadea arintzeko.

Arraroa dirudi, baita kezkarria ere. Nola lagun dezake makina batek pertsona baten bakardadea? Hala ere, mundu osoko milioika erabiltzailek egunero izaten dituzte elkarrizketak adimen artifizialarekin. Batzuek beren eguna nola joan den kontatzen diete. Beste batzuek aholkua eskatzen dute triste, urduri edo adorerik gabe sentitzen direnean. Batzuek ahots atsegina bilatzen dute pantailaren beste aldean.

Fenomeno honek asko esaten du gure garaiaz. Inoiz baino konektatuago bizi gara, eta, aldi berean, inoiz baino deskonektatuago, pertsona asko bakarrik


sentiaraziz. Bakardadeak ez die bakarrik eragiten isolatuta bizi direnei edo adinekoak direnei. Gazteen, nerabeen eta helduen artean ere agertzen da, mezuz eta pantailaz inguratuta, elkarrizketa sakonen, denbora partekatua eta benetako entzumenaren falta sumatzen baitute.

Adimen artifizialak berehalako zerbait eskaintzen du: azkar erantzuten du, ez du epaitzen eta eskuragarri dago eguneko hogeita lau orduetan. Gau zaila igarotzen duen edo beste pertsona batekin hitz egitera ausartzen ez den batentzat, hori pozgarria izan daiteke. Erabiltzaile batzuek azaldu dute IA batekin hitz egiteak

pentsamenduak ordenatzen, antsietatea murrizten edo, besterik gabe, minutu batzuetan lagunduta sentitzen laguntzen diela.

Gainera, laguntzaile emozional gisa diseinatutako aplikazio espezifikoak sortzen ari dira. Batzuek erlaxazio-teknikak irakasten dituzte, emozioak identifikatzen laguntzen dute edo estresa maneiatzeko ariketak proposatzen dituzte. Kasu batzuetan baliagarriak izan daitezke, bereziki baliabide psikologikoak falta diren lekuetan edo laguntza eskatzea tabua den lekuetan.

Baina kontuz! Ezin ditugu laguntza mota hauek eta



benetako terapia ez nahasi. Adimen artifizial batek ez du sentitzen, ez du ulertzen giza sufrimendua pertsona batek egiten duen bezala, eta ezin du psikologoaren, medikuen edo familia- eta auzo-sareen lana ordezkatu. Bere erantzunak hurbilekoak diruditen arren, atzean ez dago giza enpatiarik, ezta benetako laguntzarik ere, kalkuluak, datuak eta probabilitateak baizik.

Arriskuak ere badaude. Pertsona kaltebera bat elkarrizketa horien mende egon daiteke, eta are gehiago isolatu. Gainera, ez dago beti argi zer gertatzen den tresna horiekin partekatzen ditugun datu pertsonal eta emozionalekin. IA batekin hitz egitea intimoa izan daiteke, baina enpresek sortutako

teknologia izaten jarraitzen du.

Agian benetako erronka ez da teknologikoa, gizatiarra baizik. Parte-hartzaile horien gorakadak behartu egiten gaitu galdetzera zergatik hainbeste pertsonak bilatzen duten kontsolamendua pantaila batean. Agian, kontua ez da IA batek lagun egin diezagukeen, baizik eta gure eguneroko harremanetan zer falta den.

Larraungo bailaran, esaterako, topaketarako, elkarrizketarako eta komunitaterako guneak daude oraindik, eta hausnarketa horrek balio berezia du. Soziedadeak, jaiak, ibilaldiak, bazkal osteak eta eguneroko agurra zaintza kolektiboko modu bat dira oraindik, eta makina bakar batek

ere ezin ditu ordezkatu.

Adimen artifizialak aurrera egiten jarraituko du eta, ziurrenik, gero eta paper handiagoa izango du gure egunerokotasunean eta baita osasun emozionalean ere. Tresna erabilgarria izan daiteke, laguntza puntuala, baita arazoak detektatzeko laguntza ere. Baina komeni da gauza sinple bat gogoratzea: pertsonok teknologia behar dugu, bai, baina beste pertsona batzuk behar ditugu, batez ere.

Izan ere, teknologiak ezin du erabat ordezkatu aurrez aurreko elkarrizketa baten berotasuna, besarkada bat edo isiltasun partekatua benetan lagunduta sentitzen direnen artean.

Inigo Garaioa
MARGOLARIA



696 658 288
LEKUNBERRI

OGI-BERRI ALTZA



Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

TAXILON



Lontxo Otamendi Artola

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

IORTIA CLINICA D'ORAL - HORTZ KUTERAK



Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol. Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 661 769

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

aitz berri



edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

- ILE APAINDEGIA
- ESTETIKA
- PRESOTERAPIA
- PODOLOGIA
- LASER DEPILAZIOA ETA DEPILAZIO ELEKTRIKOA
- JENDE HELDUARENTZAT ETXEZ ETXEO ZERBITZUA.
- MIKROPIGMENTAZIOA EZPAINETAN
- MIKROBLADING BEKAINETAN

@aitzberri

“Beteluko Irakurle Taldea hiru lagunaren artean sortu genuen”



Leire Lopetegi.

Betelun sortutako Irakurle Taldeak ia ikasturte bat darama martxa, eta harrera beroa izan du ibarreko irakurleen artean. Leire Lopetegi Rekaldek, bertako irakurleak azaldu duenez, lagunarteko ideia xume batetik abiatu zen proiektua, baina gaur egun hamabi laguneko talde sendoa osatu dute. Hilabetero elkartzeko dira Beteluko Udaletxean, irakurritako liburuen inguruan hausnartzeko, iritziak partekatze eta literatura alderdi ezberdinak ezagutzeko. Martxoan, adibidez, Lucia Sollaren Sobralen *Comerás flores* liburuari buruz mintzatu ziren, eta apirilean, Karmele Mitxenaren *Zoriona*, edo antzeko zerbait liburuaren inguruan solasaldia egin zuten.

Nolatan sortu zenuten Beteluko Irakurle Taldea?

Beteluko Irakurle Taldea hiru lagunaren artean sortu genuen: Irene Matxindiarrena, Eider Goikoetxea eta ni. Hiruroi irakurtzea gustatzen zaigu eta kafe bat hartzen ari ginen bitartean, arratsalde batean, ibarrean talde bat sortzea ideia ona zela iruditu zitzaigun; hasiera batean zer harrera izango zuen jakin gabe.

Nolakoa izan da proiektua garatzeko ibilbidea?

Lehenengo urtea da aurtengoa, eta pasa den ikasturte hasieran, iraila inguruan hasi ginen. Lehenengo, taldea sortzeko ideia Whatsapp mezu baten bidez zabaldu genuen eta bertan gutako baten zenbakia jarri genuen, interesatuak zeuden pertsonak kontaktuan jarri ahal izateko. Ondoren, interesatuak zeudenekin

Whatsapp talde bat sortu genuen eta denon artean lehenengo bilera adostu genuen. Oso kontentu gaude ideia xume batetik proiektu polit bat jaio delako eta ez dugu arazorik izan aurrera eramateko.

“Oso kontentu gaude ideia xume batetik proiektu polit bat jaio delako”

Zenbat lagun elkartzeko zarete gaur egun?

Hamabi pertsona gaude irakurle taldean eta bileretan gehiengoa elkartzeko gara. Talde polita daukagu, egia esan.

Nola aukeratzen dituzue liburuak?

Liburuaren aukeraketa denon artean egiten dugu. Hasieran, lehenengo

bileran, liburu dexente proposatu ziren eta horiekin guztiekin zerrenda bat sortu genuen. Partaide bakoitzak liburu bat edo bat baino gehiago proposatu zituen; hau da, irakurri, berrirakurri, besteekin partekatu, edota irakurtzea gustatuko litzaiokeen liburuak eta horien zergatiak proposatu zituzten. Sortutako zerrenda horretatik, bozketa baten bidez aukeratzen dugu normalean eta hilabetero aukera berriak gehitzen goaz. Hizkuntza eta gai ezberdinak lantzen ditugu eta hilabete batean gaztelaniaz irakurtzen badugu hurrengoa euskaraz egiten dugu.

“Hizkuntza eta gai ezberdinak lantzen ditugu”

Liburuak apaletan.

Zer motatako liburuak irakurtzen dituzue?

Edozein motatako liburuak irakurtzen ditugu. Narratiba edo nobelak, liburu bibliografikoak, gazte literatura izan daitezkeenak edota saiakera edo gai ezberdinak jorrazten dituztenak. Eta momentuz irakurri ez ditugun arren, olerkiak, komikiak eta bestelakoak ere irakurtzeko problemarik ez dugu.

“Edozein motatako liburuak irakurtzen ditugu”

Azken libururen bat gomendatuko zenuke?

Momentuz ondorengoak irakurri ditugu; *La catastrófica visita al zoo* (Joel Dicker), *Pleibak* (Miren Amuriza), *La verdad sobre el caso Harry Quebert* (Joel Dicker), *Bitan erditu zinen nitaz ama* (Alaine Aguirre), *Comerás flores* (Lucia Solla) eta *Zoriona edo antzeko zerbait* (Karmele Mitxelena). Irakurritako liburuak haien artean oso ezberdinak dira eta bakoitzak gai askotarikoak jorrazten ditu, baina denetatik ikasi edo hausnartu ahal da zerbait. Gomendagarriena? *Bitan erditu zinen nitaz ama*

esango nuke. Liburu autobiografikoa da eta osasun mentala eta amatasuna lantzen ditu bertan.

Zer eskaintzen dizue Beteluko Irakurle Taldeak?

Ba batetik, modu honen bidez ez balitz, elkartuko ez ginatkeen jendea ezagutzeko edo elkartzeko aukera polita da. Bestetik, nahiz eta guztioi gustatzen zaigun zerbait izan, irakurtzeko denbora gorde eta behartzeko aitzakia ere bada; gai ugariaren inguruan ideiak partekatzeko eta lantzeko gunea ere baita.

“Jendea ezagutzeko edo elkartzeko aukera polita da”

Zer asmo duzue etorkizunean?

Aurtengoa ongi joan dela ikusita, ziurrenik jarraipena ematea gustatuko litzaiguke.

Amaitzeko, besterik gabe, eskerrak eman nahi dizkiet aurtun parte har-

tzera animatu diren guztioi, haiek gabe ez legoke-eta talderik eta nahiz eta ikasturtea bukatzean doan, edonor joan daitekeela bileretara.

Hilabetean behin elkartzen gara, hilabeteko azken asteazkenean, Beteluko Udaletxean eta edonor ongietorria da beti.



TALLERES GOÑI
TAILERRAK

TALLERES GOÑI
CHAPA Y PINTURA

- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN

680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM



Handienetik txikienera

Ordena itzazu korapilo hauek neurriaren arabera (handienari 1 zenbakia eman, eta txikienerari 12).



Kontsultatu soluzioak:

www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Lagundu. Gidatu. Zaindu.

Pantailak egoki erabiliz gero, bere ongizatea hobetu daiteke.

**MODU
KONTZIENTEA
AKTIBATU**



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



NAVARRA † **NAFARROA**

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

▶ AGENDA

EKAINA

- 5- 22:30 Printza VII. urteurrena.
Kontzertua: Borla Orsini. Sarrera 5 euro.
- 6- Euskal Herriko Mendi Erronka
10:30-14:30 Nafarroako X Edizioaren Azoka.
Herriko Enparantza (Lekunberri).
- 9- 18:00 "Meriendas de Cine".
Gizarte Etxea (Lekunberri).
- 12- 19:00 Aralar Udal Musika Eskolaren emanaldia.
Ibarberri Ikastetxea (Lekunberri).
- 13- 09:00 EMAN programa II (Astiz-Irujo Fundazioa)
Autokarabanen gunea (Lekunberri).
- Larraungo Eguna.** Gorriti.
Ikusi egitaraua 21. orrialdean.
- 14- 18:00 Printza VII. urteurrena.
Antzerki inprobisatua + pikoteo.
Inprofes Takzioa (Inprolabel). Sarrera 5 euro.
- 17-18- 16:00-20:00 Printza VII. urteurrena /
Martillo Txiki: Festa eta kontzertuak.
Jolasak, kontzertua eta bukatuarte jolastu
eta merienda-afari autojestionatua.
- 19-24- **Sanjoanak Lekunberriin.**
Egitarau osoa Lekunberriko Udala
eta Kultura Sailaren kanaletatik iragarriko da.
- 19- Erremonte Jaialdia (arratsaldez).
Jaiari Jai Frontoia.
- 20- Paella lehiaketa, Garagardo Azoka,
kontzertu eta emanaldiak.
- 21- Puzgarriak, Larraun Kantuz,
ongi etorria bizilagun berriei.
- 23- San Joan Bezperako suak eta otamena,
musikaz giroturik.
15:00 Bazkari autogestionatua. Printza.
- 24- Goizeko soinua, Meza Nagusia, Herri bazkaria
eta erraldoi eta kilikien konpartsa.
- 26-29- Mugiroko Festak.
- 28- LGTBIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna.

Lan eskaintza: Mailope aldizkarirako kazetaria behar dugu

Noren bila gabilta?

- ▶ Kazetaritzan, ikus-entzunezkoetan edo Komunikazioan lizentziatua.
- ▶ Maketazio lanetan esperientzia izatea baloratuko da.
- ▶ Lan jarduna euskaraz gauzatzeko gaitasuna, C1 maila.
- ▶ 2 urteko esperientzia gomendagarria antzeko lanpostuetan.

Eskaintzen dena:

- ▶ Kontratu mugagabea eta berehalako inkorporazioa.
- ▶ 6 orduko lanaldia.
- ▶ Ordutegi malgua.
- ▶ Telelanerako aukerak.
- ▶ Garatzeko eta formatzeko aukerak.
- ▶ Lekunberri lantokia behar den material guztiaz.
- ▶ Urteko soldata gordina: 21.923,02 € (1.526,25 x 14 paga).

Zure zain gaude!

Euskaltegietan 2026-2027 ikasturteko aurrematrikula egiteko epea ireki du AEK-k

Euskara ikasi, hobetu edo praktikatu nahi baduzu, ez galdu aukera. Ekainaren 30era arte egin daiteke aurrematrikula.

Informazio gehiago eta izen-ematea: www.aek.eus web-orrialdean edo zure gertuko euskaltegian.



BETELUKO FESTAK 2026

Ekainak 25, osteguna

- 16:00** Kronoigoera dortsal banaketa
16:30 Txupinazoa! eta beteluar berriei ongi etorria
Jarraian, Kronoigoera
18:30 Pala finala
21:30 Herri afaria eta sorginkeriaren jolasaren hasiera.
Ondoren, bertsolariak: Joanes eta Xabat
00:30 Iraultza Taldea. Deskantsuan "harri, orri, ar"
05:00 Baratxuri zopa

Ekainak 26, ostirala

- 11:00** Ume jolasak eta marrazki lehiaketa
Puzgarriak egun osoan zehar
12:30 Umeen futbol partiduak
14:00 Jubilatuen bazkaria Estanga trikitilariekin
16:30 Mus eta partxis txapelketa
17:00 Txokolatada eta aurpegiak marrazkilaria
19:00 Pilota finala. Bitartean, tortilla patata lehiaketa
00:00 Txapela Brava
02:00 Izzei & Eneko
07:00 Gaupaseroen argazkia

Ekainak 27, larunbata

- 14:00** Paellada eta txartelen zozketa
Ondoren, Bocabeats komedia
19:00 Elektrotxufla
22:00 Bokatak txosnan
23:30 Gabezin
02:30 Dj Muffin

Ekainak 28, igandea

- 12:00** Meza nagusia, jarraian gazta zaharra
12:30 Bailarako umeak dantzan
17:00 Atxur, zartari eta katiuska jaurtiketa
18:00 Fanfarrea eta kantu jira
19:30 Muxutruk taldea eta ardo dastaketa
21:30 Herri afaria eta bingoa
00:30 Muxutruk taldea
02:30 DJ Rivera

Ekainak 29, astelehena

SAN PEDRO EGUNA

- 07:00** Auroroak
08:00 Dianak
12:00 Meza Nagusia
12:30 Araxes pilota eskolako partiduak
17:30 Aizkolariak: Ibai Soroa eta Txomin Amundarain.
Jarraian, Inguruxoa
18:00 Alurr dantza taldea
19:00 Ingurutxoak
Jarraian, trikitilariak
20:00 Sari banaketa
21:00 Herri afaria eta traka finala

Betelu,
sorgin
guztien
ikivilu!